

BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA EGIKARITZEKO IRUZURREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

Sarrera

COVID-19aren krisiaren testuinguruan Europako Batzordeak indartu egin du estatu kideei laguntzeko egungo esparrua, eta zuzeneko finantza laguntzak ematen ditu tresna berritzaile baten bidez. Horretarako, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (aurrerantzean, «Mekanismoa») sortu da. Mekanismoaren bidez finantza laguntza espezifikoak, esanguratsua eta eraginkorra emango da estatu kideetan eraberritze jasangarriak eta inbertsio publikoak indartzeko.

Horretarako, estatu kideek berreskuratze eta erresilientzia planak sortu dituzte -Espainiaren kasuan Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia plana (aurrerantzean, PRTR, gaztelaniazko siglengatik)- eraberritzeko programa nazionalen (aurrerantzean, PNR gaztelaniazko siglengatik) barnean. Plan horiek inbertsio eta eraberritze lehentasunak eta mekanismoaren bidez finantzatzekoak diren inbertsio paketeak ezarri dituzte. Laguntza epeetan emango da egindako aurrerapausoen arabera, eta aurretik definitutako erreferentzia irizpideetan oinarrituta.

2021eko otsailaren 12ko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduaren bidez ezartzen da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa, eta berak definitzen du kudeaketa zuzenaren araubide-egikaritzea, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 322. artikulua araberaz ezarritako arauarekin bat etorriz, eta bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Finantza Erregelamenduari eta 2020/2092 Erregelamenduari (EB, Euratom). Antolamendu horrekin tresna espezifikoak diseinatu behar dira eta prozedurak definitutako esparrura egokitu behar dira. Hala, Europako Batzordea programaren egikaritze etapa guztien arduradun zuzena da, besteak beste aurkeztutako planen ebaluazioarena, ordainketena eta programen egikaritze kontrolarena.

Modu horretan eta 2021 eta 2026 artean PRTR-ren ekimenak eraginkor egiteko, Espainiako administrazio publikoek hainbat neurri ezarri behar dituzte, eta horien artean daude kudeaketa prozedurak eta kontrol ereduak egokitzea eta kudeaketa sistema bat konfiguratu eta garatzea. Sistema horrek erraztu egingo du Europako Batzordeko Zerbitzuei egiten zaizkien ordainketa eskariak eraginkorki izapidetzea beharrezko estandarrekin bat etorriz, bai ikuspuntu formalekin, bai operatibotik. Halaber, estatu kideek -mekanismoaren esparruan funtsen onuradun edo mailegu-hartzaile diren heinean- neurriak hartuko dituzte Batasunaren finantza interes guztiak babesteko, eta zaintzeko mekanismoak finantzatzeko neurriekin lotutako funtsak erabiltzean Batasuneko eta nazio mailako zuzenbidea betetzen dela, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interesen gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokienez. Horrez gain, kontrol sistema efikaza eta eraginkorra ezarri behar da oker ordaindutako edo erabilitako zenbatekoak berreskuratu ahal izateko.

Horregatik guztiarengatik, Espainiako Gobernuaren Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onetsi du. Horren bidez eratu da Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia plana (aurrerantzean, Kudeaketako MA) eta bertan ezarri dira PRTR egikaritzeko batasuneko araudian finkatutako eskakizunak koordinatuta betetzen direla bermatzeko zuzentarauak.

Horietako bat da iruzurra, ustelkeria eta interesen gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoa indartzea.

Hala, HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikuluekin bat etorriz, "PRTR neurrien egikaritzean erabakitzaile edo egikaritzzaile gisa parte hartzen duten erakundeek iruzurraren aurkako neurrien plan dutela bermatuko dute, eta deklaratu dute beren jarduketan eremuan funtsak aplikatzekoak diren arauekin bat etorriz erabili direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interesen gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokienez".

Bilboko Portuko Agintaritzak (aurrerantzean, BPA), PRTR-ren egikaritze erakunde gisa, agiri honetan jaso du bere iruzurren aurkako neurrien plana, horrela Portuko Agintaritzaren langileentzat errazagoa izateko Europa, nazio eta eskualde mailan iruzurren aurka ezarritako betekizunak betetzeko zeregina gauzatzea.

1. PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA.

Plan honen xedea da iruzur arriskuaren kontrol neurriak zehaztea, eta arreta berezia jarriko da BPAREN arloan Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoko (aurrerantzean, MRR gaztelaniako siglengatik) funtsak egikaritzean, iruzurraren arloko eskumenak kontuan hartuta.

Planak iraupen mugagabea izango du, baina urtean behin berrikusiko da eta edonola ere, bi urtean behin berrikusiko dira egikaritzearen ezinbesteko prozesuetan iruzur arriskuaren ebaluazioa, inpaktua eta probabilitatea, baldin eta iruzur kasuren bat hauteman bada edo aldaketa nabarmenak badaude prozeduretan edo langileen arloan.

Sistema hau lau arlo handitan oinarrituta dago iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokaren alderdi ezberdinak jorratzeko:

1. Prebentzioa.
2. Detektatzea.
3. Zuzentzea.
4. Jazartzea.

Iruzurraren aurkako neurrien planak interesen gatazka posibleak lantzeko jarraitu beharreko prozedura ere kontuan hartzen du, albo batera utzi gabe interesen gatazka posible bat egoteak ez duela nahitaez esan nahi iruzurra dagoenik, baina jakinik interesen gatazka garaiz konpontzen ez bada, iruzurra gerta daitekeela. Beraz, ebatzi gabeko interesen gatazka bat iruzur posible baten adierazlea izango da. Hala, iruzurra egon daitekeela frogatu dezakeen lehenengo fasea da ebatzi gabeko interesen gatazka egotea, hau da, eraginpekoak behar bezala abstenitu ez direnean edo errefusatuak izan ez direnean, baldin eta interesen gatazkako egoerak gertatu badira edo horien berri izan bada, hurrenez hurren.

Plan hau Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera onetsi da. Horren bidez ezarri zen Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa, eta PRTR kudeaketa sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan ezarritakoari bat jarraikiz onetsi da plana baita ere.

2. APLIKAZIO EREMUA.

Iruzurren aurkako neurrien plan hau BPAREN jarduketa eremuaren barnean dago.

3. OINARRIZKO KONTZEPTUAK. TERMINOEN GLOSARIOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko uztailaren 5eko batasunaren finantza interesari eragiten dien iruzurraren aurka zigor zuzenbidearen bidez borrokatzeari buruzko 2017/1371 EB zuzentarauarekin (PIF zuzentaraua) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzekoak zaizkion finantza arauak buruzko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduekin (EBren finantza erregelamendua) eta Europar Batasunaren finantza interesak babesteari buruzko abenduaren 18ko CE 2988/95 Erregelamenduekin bat etorritik, definizio hauek ezarri dira:

3.1. IRUZURRA

3.1.1 Gastuen arloan, iruzurra da nahita egin den eta hauei lotuta dagoen ekintza edo ez-egite oro:

- Deklarazio edo agiri faltsuak, zehatzak ez direnak edo osatu gabeak erabili edo aurkeztea, baldin eta ondorioz, batasunaren aurrekontu orokorretako edo batasunak administratutako edo bere izeneko aurrekontuetako funtsak edo aktiboak behar ez bezala jaso edo gorde badira,
- Informazioa jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea baldin eta ondorio berberak baditu, edo
- Funts edo aktibo horiek behar ez bezala erabiltzea hasierako emakida oinarritu zuten bestelako helburuetarako.

3.1.2 Kontratu publikoekin lotutako gastuen arloan eta 2017/1371 EB Zuzentarauaren 3.2 artikulua araberan iruzurra da gutxienez egilearentzat edo beste batentzat legez kanpoko irabazi asmoarekin hauekin lotutako ekintzak edo ez-egiteak gauzatzen direnean:

- Deklarazio edo agiri faltsuak, zehatzak ez direnak edo osatu gabeak erabili edo aurkeztea, baldin eta ondorioz, batasunaren aurrekontu orokorretako edo batasunarenak diren, batasunak administratzen dituen edo bere izenean aurrekontuetako funtsak edo aktiboak behar ez bezala erabili edo gorde badira,
- Informazioa jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea baldin eta ondorio berberak baditu, edo
- Funts edo aktibo horiek behar ez bezala erabiltzea hasierako emakida oinarritu zuten bestelako helburuetarako, eta horrek batasunaren finantza interesak kaltetzea.

3.1.3 BEZaren baliabide propioetatik datozen diru-sarrerak ez direnen arloan, hauei buruzko ekintzak edo ez-egiteak:

- Deklarazio edo agiri faltsuak, zehatzak ez direnak edo osatu gabeak erabili edo aurkeztea, baldin eta ondorioz, batasunaren aurrekontuetako, batasunak administratzen dituen aurrekontuetako edo bere izenean baliabideak legez kontra gutxitzen badira,
- Informazioa jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea baldin eta ondorio

berberak baditu, edo

- Legez eskuratutako hobari bat behar ez bezala erabiltzea, ondorio berberekin.

3.1.4 BEZaren baliabideetatik datozen diru-sarrerei dagokienez, mugaz gaindiko iruzurrezko trama batean egindako ekintza edo ez-egitea, hauekin lotuta dagoena:

- BEZaren deklarazio edo agiri faltsuak, zehatzak ez direnak edo osatu gabeak erabili edo aurkeztea, baldin eta ondorioz batasunaren aurrekontuetako baliabideak gutxitzen badira,
- BEZaren Informazioa jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea baldin eta ondorio berberak baditu, edo
- BEZaren deklarazio zuzenak aurkeztea iruzurrez disimulatzeko ordainketa egin ez dela edo BEZa itzultzeko eskubidea legez kontra sortzea.

3.2 USTELKERIA

3.2.1 Ustelkeria aktiboa

Zuzenean edo bitartekoen bidez funtzionarioei beraientzat edo hirugarrenentzat edozein motako abantaila promestu, eskaini edo ematen dien ekintza bat, horrela aipatutakoek beren egitekoarekin edo beren funtzioak egikaritzuz jardun dezaten edo jardun ez dezaten, batasunaren finantza interesak kaltetuz edo arriskuan jarritz.

3.2.2 Ustelkeria pasiboa

Zuzenean edo bitartekoen bidez langile batek egindako ekintza, non berarentzat edo hirugarrenentzat abantailak eskatu edo jasotzen dituen, edo abantaila baten promesa onartzen duen, eta bere egitekoarekin edo bere funtzioak egikaritzuz jardun dezan edo jardun ez dezan, batasunaren finantza interesak kaltetuz edo arriskuan jarritz.

3.3 INTERESEN GATAZKA

Interesen gatazka egoten da funtzioen egikaritze inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familiako arrazoiak, afektiboak, kidesun politikoak edo nazionalak, interes ekonomikoak edo langileen intereseko arrazoi zuzenak edo zeharkakoak direla-eta, eta aurrekoek -ekintza horien egile posibleak diren heinean- kudeaketa, kontrol eta ordainketa zereginak egiten dituzten langileak edo zereginak eskuordetu zaizkien bestelako eragileak eta onuradun pribatuak, kideak, kontratistak eta azpikontratistak kaltetzen dituztenean, baldin eta horien jardunak funtsekin finantzatzen badira eta beren interes propioen alde, baina EBren finantza interesen aurka jardun dezaketenean interesen gatazka batean.

3.3.1 Itxurazko interesen gatazka.

Langile edo onuradun baten interes pribatuak bere zeregin edo betebeharrak objektiboki betetzea arriskuan jar dezaketenean, baina azkenean pertsona horren jarreran, jokaeran edo harremanetan lotura identifikagarri eta indibidualik (edo alderdi horien ondorioz) aurkitzen ez denean gertatzen da.

3.3.2 Interesen gatazka potentziala.

Langile edo onuradun batek etorkizunean erantzukizun ofizialak bere gain hartu beharko lituzkeen kasuan interesen gatazka sor dezaketenean interes pribatuak dituztenean sortzen da.

3.3.3 Benetako interesen gatazka

Betebehar publikoaren eta langile baten interes pribatuen arteko gatazka da, edo langileak interes pertsonalak dituen eta horiek behar ez bezala eragin dezaketenean bere zeregin eta erantzukizun ofizialak betetzeko. Onuradun baten kasuan funtsen laguntza eskatzean bere gain hartutako betebeharren eta aipatu betebeharrak zuzen ez betetzea sor dezaketen bere interes pribatuen arteko gatazka sortuko luke.

3.4 IRREGULARTASUNA

Abenduaren 18ko CE 2998/1998 Erregelamenduaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, batasuneko zuzenbidearen xedapen baten arau-haustea gertatzen da eragile ekonomiko batek egindako ekintza edo ez-egitea, baldin eta horren ondorioz komunitateen aurrekontu orokorra edo komunitateek administratutako aurrekontuak kaltetzen baditu edo kaltetzeko arriskua sortzen badu, bai komunitateen kontura zuzenean jasotako baliabideen diru-sarrerak gutxitzen edo ezabatzen baditu, bai gastu okerrak egiten baditu.

4. IRUZURREN ARLOKO ANTOLAMENDU EGITURA.

Gaur egun indarrean dagoen Espainiako araudiak eraturik du interesen gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitu, detektatu eta zuzentzeko abiapuntu sendoa bermatzen duen araudi esparrua. Hala ere, mekanismo horiek egokitu behar dira arriskua kudeatzeko antolamendu proaktibo, sistematizatu eta espezifikoan oinarrituta diseinatutako neurri batzuen bidez, modu horretan, batasunaren betekizunak bete daitezken; azken horiek berariaz jasota daude orokorrean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzekoak zaizkion finantza arauei buruzko 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren 61. eta 129. artikuluetan eta, beren-beregi berreskuratze eta erresilientzia mekanismoaren arloan MRR-ren erregelamenduaren 22. artikuluan.

Erakunde erabakitzaileek eta egikaritzzaileek ezarri behar dituzten eta MRR-ren erregelamenduaren 22. artikuluko betekizunak betetzen direla ziurtatzen duten eta interesen gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitzearekin, detektatzearekin eta zuzentzearekin lotuta dauden indartze neurriak organo egikaritzzailearen (1.maila) barne kontrolean kokatuta daude. PRTRn honela aipatzen da:

“Lehen maila honek nagusiki Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoko jarduketa bat egikaritzeko ardura duten organoen arloan jarduten du eta Espainiako administrazio jardura guztien lehen mailako eta oinarritzko kontrola da. Segurtasuna eman behar du legezko betekizunak, helburuak eta finantza kudeaketa ona betetzearen inguruan.

Ezarririkotako helburuak betetzeko egikaritu behar diren eragiketei aplikatzeko zaien araudi esparruan daude iruzurra, ustelkeria, interesen gatazka eta finantzaketa bikoitza saihesteko erregulazioak, zeina dirulaguntza publikoen kasuan, batasuneko finantzaketa bikoitzera iristeaz gain, jatorria edozein izanda ere gerta daitezkeen gehiegizko finantzaketetara iristen den. Puntu honetan azpimarratzekoak dira Sektore publikoko kontratuen legea, Dirulaguntzen lege orokorra, Sektore publikoaren araubide juridikoaren legea eta Administrazio prozedura erkidearen legea”.

Hala ere, antolamendu egituren aniztasuna ikusirik, ez da posible antolamendu eredu bakarra sortzea, baina egiaztatu daiteke beharra dagoela zenbait funtzio egin eta aplikatzeko. Funtzio horiek BPAk egokitzen jotzen dituen egungo unitateei esleitu beharko zaizkie irizpide batzuekin bat etorriz, eta edonola ere errespetatu egin beharko dira indarreko araudi xedapenak, edo bestela sortu berriak diren unitateei esleitu zaizkie dagozkien erakundeek egokitzen jotzen badute PRTRn aurreikusitakoa kontuan hartuta.

BPAAn bi unitate ezarri dira funtzioen bi bloke gauzatzeko

1. Iruzurren aurkako Batzordea: Iruzurraren aurka borrokatzeko estrategia diseinatuko du eta hauek osatuko dute:
 - Jokabide Kodearen batzordekideak.
 - Deituak izango diren proiektuaren edo azpiproiektuaren organo kudeatzaileak, dagokion bileraren irismenaren arabera.

Jorratu beharreko gaiak kontuan hartuta Kontu-hartzailatza nagusiari edo Estatuko Zerbitzu Juridikoari jakinarazi ahalko zaio kide anitzeko organoaren bileraren deialdia eta idatziz jasoko da zein puntutan parte har dezakeen, horrela balora dezan ordezkari bat izendatzea aholkulari moduan. Edonola ere, autonomia eta independentzia printzipioak errespetatuko dira.

Eskumenak

- Batasunaren finantza intereseko arriskuaren ebaluazioak egitea, edo hala badagokio, berrikustea eta onestea.
 - Arrisku adierazleak identifikatzen parte hartzea eta lan teknikoa egitea kudeaketa kontrola egikaritzean gauzatu beharreko kontrolen plangintza zehazteko. Lehenetsi egin beharko dira arrisku gehiago dituzten arloak.
 - Zaintzea erakundeko langileei jakinarazten zaizkiela iruzurren aurkako neurrien plana onetsi eta eguneratu izana, eta horrekin eta bere neurriekin lotuta egin beharreko gainerako jakinarazpenak baita ere.
 - Iruzurra edo ustelkeria izan daitezkeen gaiak analizatzea eta hala dagokionean, organo eskudunari bidaltzeko proposamena egitea, horrela dagokion erakundera bideratu dadin, ustezko iruzurraren edo ustelkeriaren motaren eta irismenaren arabera.
 - Beharrezko agirien ereduak baliozkotzea interesen gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitu, detektatu, zuzendu eta jazartzeko eta horiekin lotutako agiriak baliozkotzea.
 - Interesen gatazken, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioari, detekzioari, zuzenketari eta jazarpenari buruzko neurri zuzentzaileak eta hobekuntza prozedurak proposatzea.
 - Alor hori erakundeko prestakuntza planaren ikastaro espezifikoetan sartzearen aukera ebaluatzea.
 - Informazio bideak ezartzea batasunaren finantza interesak babesteari dagokionez.
 - Espediente kopurua edo prozeduren ezaugarriak direla-eta lan karga handia duten kudeaketa alorrei dagokienez, nahikoa den laginketa sistema definitzea eta arriskuak bere jarduketetan, proiektuetan eta/edo azpiproiektuetan lehenestea eta laginketa irizpideak ezartzea; eta ahulguneak detektatzen badira, irizpideak aldatzea, eta hala badagokio laginak handitzea.
2. Kudeaketa koordinatzeko eta jarraitzeko unitatea. Zereginak bere gain hartuko ditu BPAren Ekonomia eta Finantza Zuzendaritzak eta beste sail batzuen laguntza jaso

ahalko du, dagokion bileraren irismenaren arabera. Identifikatutako arrisku espedienteak egiaztatu eta analizatu beharko lituzke, eta hala dagokionean, neurri espezifikoak proposatu.

Eskumenak

- Erakundeko langileei jakinaraztea iruzurren aurkako neurrien plana onetsi eta eguneratu izana eta horrekin eta bere neurriekin lotuta egin beharreko gainerako jakinarazpenak egitea.
- Erakundeko langileen artean zabaltzea Iruzzurren aurkako koordinazioko zerbitzu nazionalaren (Infraude) kanpoko salaketa postontziari buruzko informazioa. Postontzi horretan jakinaraztekoak dira Europako funtsei eragiten dieten iruzurrei edo irregulartasunei buruzko informazioak, eta atal espezifiko bat du MRR-ri buruz.
- Lan prozedura bat ezartzea. Beraien eskumenen artean txostenak bildu eta espedienteak izapidetu ahalko dituzte.
- Beharrezko agirien ereduak sortzea interesen gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitu, detektatu, zuzendu eta jazartzeko eta horiekin lotutako agiriak baliozkotzea baita ere.
- Hala dagokionean iruzurren aurkako Batzordeak onesten duen barneko kontrol plana egikaritzea.
- Iruzzurren zantzu posibleen komunikazioak analizatu, aztertu eta baloratzea.
- Hierarkian goragoko mailan dagoenari, eta hala badagokio kide anitzeko organoari jakinaraztea, hark ebaluatu ditzan ustezko iruzur eta ustelkeria kasuak.
- Hala badagokio, Iruzzurren aurkako Batzordeak ebaluatu eta gero, hierarkian goragoko mailan dagoenari jakinaraztea iruzurra edo ustelkeria izan daitezkeen kontuak, dagokion erakundera bideratu daitezkeen ustezko iruzurraren edo ustelkeriaren motaren eta irismenaren arabera. PRTR-ren arloari eragin dakiekeen Ogasun Ministerioaren Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaizkio. Bera da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren arduraduna eta berari jakinarazi beharko zaizkio gertatutako egitateak eta ezarritako neurriak, baldin eta iruzur posible bat edo egiaztatutako iruzur bat detektatzen bada (edo hala dagokionean, jarduketak egikaritzeko agindua eman dion erakunde erabakitzaileari edo egikaritzzaileari jakinarazi beharko zaio).
- Ezkutuko informazioa hastea erantzukizun posibleak ebaluatzeko, eta hala dagokionean, egitateak arloan eskuduna den organoari jakinaraztea, organo horrek ebaluatu dezan espediente bat ireki behar den edo ez ekonomia eta aurrekontu arloko arau-hauste bat egiteagatik, Gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onaren abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoa, edo ebaluatu dezan ea diziplinazko espedienteak hasi behar den.

5. «IRUZURREN AURKAKO ZIKLOAREN» LAU ELEMENTU GILTZARRIETAKO IRUZURREN AURKAKO NEURRIAK: PREBENTZIOA, DETEKZIOA, ZUZENKETA ETA JAZARPENA.

Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzko

2017/1371 EB Zuzentarauaren 3.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz -Espainiako ordenamendu juridikoan ezarri zena Zigor Kodearen 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen 1/2019 Lege Organikoaren bidez-, gastuen arloko iruzurtzat jotzen dira hauei lotutako ekintzak edo ez-egiteak:

a) Deklarazio edo agiri faltsuak, zehatzak ez direnak edo osatu gabeak erabili edo aurkeztea, baldin eta ondorioz, Europako komunitateen aurrekontuetako edo Europako komunitateek administratutako aurrekontuetako edo bere konturako funtsak edo aktiboak behar ez bezala jaso edo gorde badira.

b) Informazioa jakinarazteko berariazko betebeharra ez betetzea, baldin eta ondorio berberak baditu.

c) Funts horiek desbideratzea hasiera batean eman ziren helburuez besteko xedeetarako.

2017/1371 EB Zuzentarauaren 7. artikuluan ezartzen da nahita egiten diren arau-hauste penalentzako zehapen araubidea. Zigor Kodeak nazio mailan aplikatzekoa den zehapen araubidea jasotzen du.

PRTR-ren jarduketak egikaritzen parte hartzen duten BPAko langileek iruzurraren aurkako neurriak aplikatu beharko dituzte.

IRUZURRAK PREBENITU, DETEKTATU ETA ZUZENTZEKO sistema honako oinarritzko alorretan oinarrituta egituratzen da, eta alor horiek osatzen dute iruzurraren aurkako borrokaren zikloa, eta helburua da aurrekoak ahalik eta gehien gutxitzea. Horretarako prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena daude, eta aurreko guztia honela egingo da:

5.1 Prebentzioa

Sistemaren oinarritzko zatia da, izan ere, interesen gatazkak, iruzurrak edo ustelkeriak sortzea ekiditen ditu. Kontuan hartuta zaila dela iruzurrezko jokoerak frogatzea eta kalteak konpontzea, komeni da iruzurrak prebenitzea jada egin direnean jardutea baino.

Espainiako araudi esparrua prebentzio sistema indartsua, da eta berdin babesten ditu nazio mailako aurrekontu funtsekin finantzaturako administrazio jarduketa eta Europar Batasunak finantzaturakoa. Hala ere, prebentzio sistema osoa izan arren, neurri zehatzak ezarri behar dira batasunaren finantza interesak babesteko konpromisoaren barnean eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren egikaritze esparruan.

Iruzurraren hondar arriskua gutxitzeko prebentzio neurri hauek aplikatuko dira:

5.1.1. Iruzurraren aurkako erakunde deklarazioa – I. eranskina

BPAk Administrazio Kontseiluak 2022ko uztailaren 15ean hartutako berariazko erabakiaren bidez iruzurraren aurkako erakunde deklarazioa sinatu du eta bere webgunean argitaratuko da. Plan hau onestean deklarazio hori sinatu da, eta ondorioz integritatea, objektibotasuna, kontuen azalpena eta zintzotasuna bezalako balioen sustapenean oinarritutako kultura etikoa garatuko da.

Agiri honen I. eranskinean iruzurraren aurkako erakunde deklarazioa sartu da.

5.1.2. Laguntza jakinarazpenetako iruzurren aurkako konpromisoa

Laguntzen azken onuradunei iruzurraren aurkako borrokaren konpromisoa jakinaraziko zaie nahitaez laguntza emakiden eta kontratuen jakinarazpenen bidez. Onuradunek Europa,

nazio eta erkidego mailako araudian eta plan honetan jasotako iruzurraren aurkako neurri guztiak betetzeko konpromisoa hartuko dute. Kontratazioa denean halaberrez aurkeztuko da Kontratazioko Europako Agiri Bakarra (DEUC, gaztelaniaz).

5.1.3. Inpaktuaren ebaluazioa eta arrisku probabilitatea – II. eranskina

Arriskuaren ebaluazio proaktiboa, egituratua eta espezifikoa da eta iruzurra sufritzeko zaurgarrienak diren prozesuaren zatiak identifikatzeko, kontrolatzeko eta beharrezko neurri proportzionatuak hartzeko balio du detektatutako arrisku mailaren arabera. Horretarako, kudeatzaile guztiek arriskuaren autoebaluazioak egingo dituzte eta kudeaketako barneko kontrolak egingo dituzte proiektuen edo azpiproiektuen arduradunek. Horrez gain, emaitzen txostenak aldizka eguneratuko dira, bi urtean behin edo urtean behin, iruzur arriskuaren arabera.

II. eranskinean neurrian esku hartuko duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek bete beharreko inpaktuaren autoebaluazioaren eta arrisku probabilitatearen eredia dago.

5.1.4. Iruzurraren aurreko jokabide kodea – III. eranskina

BPAk delitu penalen prebentzioko, jokaera kodeko eta salaketen kanaleko eredu bat du. Administrazio Kontseiluaren erabakiaren bidez onetsi zen 2016ko urriaren 13an eta bere eremuaren barnean daude Portuko Agintaritzako langile guztiak, goi-karguak eta administrazio kontseiluko kideak barne. Horrez gain, iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako opari politikak, publizitatea eta babesletzak onetsi ziren. Gainera, lege hauetan jasota dauden eta aplikatzekoak diren legezko arauen zatiak sartu dira: 19/2003 Legea, abenduaren 9koa, 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa; 5/2015 LED, urriaren 30ekoa, eta 53/84 Legea, abenduaren 26koa.

Agiri horiek guztiak eta egindako arriskuen matrizea plan honen zatiak dira.

5.1.5. Interesen gatazka posibleen prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari buruzko agiria - IV. eranskina

6. apartatuan langileei interesen gatazken modalitateei, horiek ekiditeko moduei eta indarreko araudiari buruzko informazioa ematen zaie eta interesen gatazka posiblea detektatzen denean jarraitu beharreko prozedura zein den azaltzen da (IV. eranskina). Gainera, lege hauetan jasota dauden eta aplikatzekoak diren legezko arauen zatiak sartu dira: 19/2003 Legea, abenduaren 9koa, 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa; 5/2015 LED, urriaren 30ekoa, 53/84 Legea, abenduaren 26koa, eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa.

5.1.6. BPAren unitate bat kudeaketa koordinatu eta jarraitzeko. Berari esleitzen zaizkio Iruzurren aurkako planaren aplikazio eta jarraipenetik eratorritako funtzioak eta bertako neurriak,

Iruzurra ebaluatzen du, salaketak aztertzen ditu, iruzurra edo ustelkeria izan daitezkeen egoerak ebaluatzen ditu eta, beharrezkoa denean dagokien erakundeei jakinarazten dizkie eta neurri zuzentzaileak proposatzen ditu.

5.1.7. Prestakuntza eta sentsibilizazioa

Iruzurraren aurkako politikei buruzko jardunaldi, tailer eta/edo prestakuntza ikastaro teoriko eta praktikoetan parte hartzea sustatuko da, baldin eta horiek BPAren agintariei eta langileei zuzenduta badaude eta Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako azpiproiektuen eta jarduketan kudeaketa eta egikaritzean esku hartzen badute.

Prestakuntza ekintza guztiak ezagutzak eskuratu eta transferitzeari bideratuta daude eta Europako Batzordearen informazioarekin lerrotatuta eta eguneratuta dagoen informazio hau jasoko dute:

- Arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa, kontrol espezifikoak ezartzea eta iruzurra detektatzen denean jardutea.
- Alderdi interesdun bakoitzaren zereginak eta erantzukizunak, bermatuz arazorik gabe ulertzen direla bakoitzaren betebeharrak.
- Jakinarazpen prozedurak.
- Informazio guzti hori egongo den Intraneteko atalera sarbidea.
- Argitalpenak informazio buletinetan, kartelak, edo bilera ofizialen gai-zerrendan sartzea.
- Iruzzurrezko jokaeren susmo gisa jakinarazi beharko liratekeen egoeren ereduak edo kontrola egikaritzea.
- Modu konfidentzian jakinaraztea eta erakunde egikaritzailak errepresaliarik ez jartzea jakinarazpena egiten duenaren aurka.
- Erakunde egikaritzailak egindako jakinarazpenari emandako erantzuna jarraituko du.

Langile guztiek, berriek baita ere, prestakuntza jasoko dute, beren erantzukizunaren arabera. Adibidez, prestakuntza jardunaldiak emango dira erantzukizun handiagoak dituzten zuzendaritza zentroentzat.

Prestakuntza jarduketa guztien edukia jokaera horiek detektatu ditzaketen BPAko langile guztiei emango zaie.

5.1.8. Datuak egiaztatzea eta qurutzatzea

BPAko webgunean argitaratuta erakundeko langileei informazioa emango zaie guztiek jakin dezaten badagoela Iruzzurren Aurkako Koordinazioko Zerbitzu Nazionalak (Infraude) eskuragarri jarri duen kanpoko salaketa kanala. Kanal horretan jakinarazten dira Europako funtsei eragiten dieten iruzurrak eta irregulartasunak eta atal espezifiko bat dago Berreskuratzeko eta Erresilientzia Mekanismoari buruz, kontuan hartuta apirilaren 6ko 1/2017 Jakinarazpenaren xedatutakoa iruzurra edo irregulartasuna sor dezaketen egitateen berri dutenek jardun beharreko moduari buruz, eta Europar Batasunaren funtsen kargura osorik edo partzialki finantzatuta dauden proiektuei edo eragiketeei dagokienez.

https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/eses/snca/Documents/ComunicacionSNCA_06-04-2017Canaldenuncias.pdf

Jakinarazpen horren arabera, *“agintaritzea eskudunei Europar Batasuneko finantza interesen iruzurraren aurkako borrokari buruzko informazio garrantzitsua bidaltzea errazteko, eta alor horretan Iruzzurren Aurkako Koordinazioko Zerbitzu Nazionalari dagozkion koordinazio zereginen esparruan, norbaitek jakiten badu Europar Batasuneko funtsen kargura osorik edo partzialki finantzatuta dauden proiektuekin edo eragiketekin lotuta iruzurra edo irregulartasuna sor dezaketen egitateak daudela, jazoera horiek Iruzzurren Aurkako Koordinazioko Zerbitzu Nazionalari jakinarazi ahalko dizkio bitarteko elektronikoen bidez zerbitzu horren webguneko kanal honetan:*

<http://www.igae.pap.minhafp.gob.es/sitios/igae/es-ES/Paginas/Denan.aspx>.

Halaber, eta baldin eta ez ohiko moduan posible ez denean bitarteko elektroniko horiek erabiltzea, egitateak Iruzzurren Aurkako Koordinazioko Zerbitzu Nazionalari paperean jakinarazi ahalko zaizkio agiriak bidalita”.

SNCAri iruzur susmoen eta egiaztatutako iruzurren berri emateko betebeharrari dagokionez, zerbitzu honen jakinarazpenak eta horri buruz ezarritakoak beteko dira.

5.2. Detekzioa

Irregularitasun bat identifikatzen denean zehaztu beharko da ea iruzur zantzuak dauden, hau da, detektatutako irregularitasunarekin lotuta nahita egindako egintzarik edo ez-egiterik dagoen.

Hauek dira egikaritu beharreko mekanismoak, tresnak eta detekzio neurriak:

5.2.1. Komunikazio sistema

BPAko komunikazio sistema bat ezarriko du barneko eta kanpoko komunikazio kanaletan oinarrituta eta iruzur susmo posibleak jakinarazteko mekanismo egokiak eta argiak izango ditu.

Komunikazio sistemak gutxienez ekintza hauek izango ditu:

- Postontzi espezifiko bat martxan jarriko da BPAko barneko langileek mekanismoaren jarduketei buruz egindako salaketak jasotzeko. Salaketa horiek protokolo espezifiko baten bidez jorratuko dira eta salatzaileen nortasuna gordeko da.
- BPAko agintaritzei iruzurren susmoak jakinarazteaz gain, adibidez iruzurrekiko zaurgarritasuna gehitu dezaketen puntu ahulen berri emango zaie.
- Modu koordinatu eta antolatuan gainerako agenteei iruzurraren detekzioaren berri ematea: estatu kidean ikerketaren ardura duten erakundeak eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko agintaritze arduradunak.
- Egitateak eta ezarritako neurriak ahalik eta azkarren jakinaraztea erakunde erabakitzaileari edo egikaritzeileari, dagokionaren arabera, eta hark jakinaraziko dio agintaritze arduradunari.
- Modu koordinatu eta antolatuan interesdun agintaritzei jakinaraztea, hau da, azpiproiektuak edo jarduketak egiten dituzten eta/edo horiek berrikusten dituzten erakundeak.
- Kontrol txostenaren laburpen bat hedatzea (iruzur kasu horiek jasotzen dituen), eta erakunde egikaritzeilearen kudeaketa txostena baita ere.

5.2.2. Adierazleen katalogoa (bandera gorriak) – V. eranskina

Agiri honen V. eranskin gisa atxiki da iruzurra dagoela zehazteko “bandera gorriak” deitzen diren adierazleen zerrenda. Adierazle horiek alerta dira eta iruzur jarduera posiblea gertatzen ari dela adierazten dute, eta kasu horretan berehala jardun behar da egiaztatzeko ea ekintzaren bat egin behar den.

Halaber, bandera gorriren bat detektatzen bada jarraitu beharreko prozedura definitzen da.

Bandera gorriak alarma seinaleak dira, iruzur posiblearen pistak edo zantzuak. Bandera gorria egoteak ez du esanahi halabeharrez iruzurra dagoenik, baina adierazten du jarduera arlo jakin bati arreta osagarria jarri behar zaiola iruzur potentzial bat alboratu edo egiaztatzeko.

PRTR-ren jarduketak egikaritzeko izapidetzen diren prozeduretan, kudeaketa kontrolaren zeregina egikaritzean, agirietan jasota geratu beharko da dagokion egiaztapen zerrenda beteta definitu diren bandera gorri posibleen berrikuspena. Zerrenda hori prozeduraren askotariko faseetan pasatuko da, eta modu horretan estaliko dira erakundeak definitutako iruzur edo ustelkeria posibleen adierazle guztiak (horregatik posible da adierazleren bat faseren batean ez aplikatzea, baina beste batzuetan bai).

5.2.3. Agiri faltsuak detektatzea

Neurri horrek iruzurraz eta ustelkeriaz gaindiko beste jarduketa batzuei eragiten die, eta horregatik, apartatu bereizi batean zehaztu da aurrerago.

Hala ere, 2017/1371 EB Zuzentarauaren 3.1 artikuluan aipatzen den moduan aipatu behar da haxe agertzen dela iruzurraren definizioan: “deklarazio edo agiri faltsuak, zehatzak ez direnak edo osatu gabeak erabili edo aurkeztea, baldin eta ondorioz, Europako komunitateen aurrekontuetako edo Europako komunitateek administratutako aurrekontuetako edo bere konturako funtsak edo aktiboak behar ez bezala jaso edo gorde badira”.

Bestalde, artikulua beraren 2. artikuluan ezarrita dago hauen arteko bereizketa: kontratu publikoekin lotu gabeko gastuak, kontratu publikoekin lotutako gastuak, BEZaren baliabide propioetatik sortu ez diren diru-sarrerak eta BEZaren baliabide propioetatik sortu diren diru-sarrerak. Bereizketa hori kontuan hartu beharko da agiri faltsifikatuak detektatzeko.

5.3. Zuzenketa eta jazarpena

Nahitasuna iruzurraren elementu propioa da, PIF zuzentzarauan jasotako kontzeptuaren arabera. Nahitasuna egon dela egiaztatzea, eta beraz, batasunaren finantza interesen aurkako iruzurra dagoen edo ez erabakitzea ez dagokie administrazio organoei, baizik eta dagokion jokaera epaitu behar duten zigor ordenako organo juridikzionaleri. Hala ere, beren zereginak zorrozki betetzean, administrazio organoek eskuragarri duten agirietan oinarrituta aurretiazko balorazio bat egin behar dute nahitasun posiblearen inguruan, edo hala badagokio, nahitasunik ez egotearen inguruan, modu horretan erabakitzeke ea jokaera jakin bat organo juridikzionaleri edo Zerga Ministerioari jakinarazi behar zaion, ikertua izateko eta hala dagokionean, zigor penala jartzeko.

Iruzurra izan daitekeen jokaera bat detektatzen den kasuetarako zuzenketa eta jazarpen protokoloa.

- a) Iruzurra edo ustelkeria izan daitekeen jokaera baten berri izaten deneko administrazio prozeduraren administrazio organo arduradunaren titularrak Iruzurraren aurkako neurrien planeko bandera gorriren bat egon daitekeela aztertu ondoren edo beste inguruabar batengatik horren berri jaso duenean, honakoak egin beharko ditu:
- iruzurraren ebidentziak izan daitezkeen agiri guztiak biltzea;
 - prozedura berehala indargabetzea, hori posible denean araudiarekin bat etorritz;
 - gertatutako jazoeren deskribapen txostena idaztea;
 - gai hori, txostena eta agiri bidezko ebidentzia bidaltzea kontrol unitateari, iruzur posiblea baloratzeko;

- prozeduraren araudiarekin bat etorri iruzurraren konkurrentzia saihesteko ezarri behar edo ahal dituen neurriak ezartzea.

Iruzurra izan daitekeen egitatea kontratazio organoak jakiten badu oraindik administrazio eskumenak dituenean (prozedura zein fasetan dagoenaren arabera), beharrezko neurriak ezarri beharko ditu iruzurra gerta ez dadin. Halaber, adibidez kontrol zereginen funtzioak moldatutako pleguen salaketa bat jasotzen badu eta administrazio prozeduraren organo arduradunak oraindik administrazio eskumenik ez badu (prozedura zein fasetan dagoenaren arabera) behar den moduan jardungo du iruzurra gerta ez dadin, eta ahalik eta azkarren jakinaraziko dio prozeduraren arduradunari. Bestalde, salaketa beste une batean jasotzen bada (administrazio prozedura bukatuta dagoen fasean), eta ikusirik ikerketa eskumenik ez duela, egoera horren berri eman beharko die eskudunak diren agintaritzei. Organo kudeatzaileak baloratu beharko du ea eskumenik duen zuzentzeko edo zuzenketa proposatzeko edo jakiteko ea dagokion organo eskudunera jo behar duen.

- b) Aipatutako unitateak edozein bitartekotan jakinarazten badu iruzurraren edo ustelkeriaren zantzuak daudela, bai ofizios bai eta administrazio organoek bidalitako informaziotik abiatuz, bitarteko formalekin jarduketa, proiektu eta/edo azpiproiektu horiek egiten dituzten erakundeei jakinaraziko zaie, baldin eta gaiaren berri eman zieten administrazio organoak ez badira.

Eraginpeko organismoek nahitaez kontrol funtzioen unitateak eskatutako informazio guztia bidali beharko dute, baldin eta jakinarazpena arrazoitu zuten egitateekin lotuta badago, eta informazioaren konfidentziasuna eta tratamendu egokia bermatuko dute eta datuak babesteko araudia errespetatuko dute.

Prozeduren organo izapidegileek iruzurraren zantzuen berri izaten badute, a) hizkian aipatu den bezala, zuzenean joko dute kontrol funtzioen unitatera eta dagokion dokumentazioa entregatuko dute baloratu dezaten eta beharrezko jarduketak izapidetu daitezzen.

- c) Unitate horrek modu objektiboan ebaluatuko du ustez iruzurra edo ustelkeria dagoen, hala erabakitzeke ea jokaera jakin bat salatu behar den eskudunak diren organo juridikzionalen aurrean edo Zerga Ministerioan, ikertua izan dadin, eta hala badagokio, zigor penala jartzeko.

Iruzurra izan daitekeela uste bada, unitate honek gai hori kide anitzeko organora bidaliko du baloratua izan dadin eta organo eskudunera bidaltzeko proposamena egin dadin, eta hala badagokio, dagokion erakundera bidaltzeko, ustezko iruzur motarekin eta irismenarekin bat etorri (Iruzurren Aurkako Koordinazioko Zerbitzu Nazionala -SNCA-, eta/edo Zerga Ministerioa).

SNCAren jakinarazpenari dagokionez, gogorarazi behar da herritarrek eta langile publikoek Europako funtsei eragiten dieten iruzur zantzuak daudenean, eta barne komunikazioko sisteman ahultasunak edo operatibitate falta dagoenean, aukera izango dutela iruzurren zantzuak edo ustez iruzurrezkoak diren egitateak SNCAren jakinarazteko Infofraude kanpoko salaketa kanalaren bidez, baloratuak izan daitezzen eta hala badagokio Iruzurren Aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari jakinarazteko.

SNCAri iruzur susmoen eta egiaztatutako iruzurren berri emateko zerbitzu honen jakinarazpenak eta horri buruz ezarritakoak beteko dira.

- d) Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.6 artikulua aplikatuz gertatutakoak eta ezarritako neurriak jakinaraziko zaizkio dagokion erakunde erabakitzaleari (edo

jarduketak egikaritzeko agindua jaso duen erakunde egikaritzaileri, eta kasu horretan erakunde horrek erakunde erabakitzaileari jakinaraziko dio), izan ere, bera da azken erantzukizuna duena proiektuak betetzeko. Erakunde erabakitzaileak Agintaritza Arduradunari jakinaraziko dio eta azken horrek kontrol agintaritzari egokitzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahalko dio jarraipena eta komunikazioa egiteko.

- e) Modu osagarri eta paraleloan, informazio isila hasi beharko du erantzukizunak egozteko edo dagokion zehapen espedienteak hasteko.

Hala, kontrol funtzioak dituen unitateak ezkutuko informazioko espediente bat hasiko du erantzukizun posibleak ebaluatzeko, eta hala dagokionean, egitateak arloan eskuduna den organoari jakinarazteko, organo horrek ebaluatu dezan espediente bat ireki behar den edo ez ekonomia eta aurrekontu arloko arau-hauste bat egiteagatik, Gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onaren abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoa, edo ebaluatu dezan ea diziplinazko espedienteak hasi behar den.

- f) Eraginpeko erakundeak ebaluatu beharko du iruzur posiblearen eragina, eta horretarako lotura izan dezaketen proiektuak eta/edo azpiproiektuak berrikusiko ditu eta sistemiko edo puntual gisa kalifikatuko ditu, eta iruzurrak kaltetutako eta MRRK finantzatutako edo finantzatu beharreko proiektuak eta/edo azpiproiektuak kenduko ditu.

Edonola ere, agintaritza eskudunek berreskuratu egin beharko dituzte oker ordaindutako zenbatekoak eta bermatu beharko dute iruzurrez erabili diren funtsak berreskuratzeko prozesuak indartsuak direla, bereziki EBn. Zehapen horien aplikazioa eta ikusgarritasuna ezinbestekoak dira iruzurrak egitea saihesteko, eta beraz, irmo eta bizkor jardun behar da.

Fase horretan bermatu egin beharko da prozedurako agintaritza parte-hartzaileen arteko lankidetzak, bai administraziokoak bai judizialak, eta oso bereziki datuen tratamenduan, konfidentzialtasunean eta prozeduretako agiriak eta frogak kontserbatzean.

- g) Ikerketa bukatzean edo agintaritza eskudunei transferitzean, jarraipen egokia egin beharko zaio iruzur potentzialarekin edo egiaztatutakoarekin lotutako kontrol mekanismoak aldatu edo berrikusteko.

6. INTERESEN GATAZKEI LOTUTAKO NEURRIAK ETA PROZESUAK.

Interesen gatazka ez da iruzurra bere horretan, baina iruzurra sor dezakeen egoera baten lehen adierazlea denez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua iruzurra, ustelkeria eta interesen gatazka prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea jorratzen du, eta horren arabera, halabeharrezkoa da interesen gatazka jorratzea eta Interesen Gatazkarik ez dagoenaren Deklarazioa (DACI, gaztelaniazko siglengatik) betetzea Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren egikaritze prozeduretan.

Eskakizun hori gutxienezkoa da, eta osatzeko Europako Batzordeak agindutako erabakiak edo jarraibideak bete beharko dira.

Interesen Gatazka (IG) dago BPAko langileek eta Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako azpiproiektuen edo jarduketan kudeaketan eta egikaritzean parte hartzen duten gainerakoek zuzenean edo zeharka eta partekatutako moduan (prestakuntza egintzak, ikuskaritzak eta kontrola barne) arriskuan ikusten dutenean beren zereginak modu inpartzial eta objektiboan egin ahal izatea familiako arazoak, afektiboak, kidesun politikoak edo nazionalak, interes ekonomikoak edo bestelako zuzeneko edo

zeharkako interes pertsonaleko arrazoiak direla-eta.

Finantza erregelamenduaren 61. artikuluan zehazten da IG dagoela “finantza agenteek eta aurrekontu egikaritzean eta kudeaketan (prestakuntza egintzak, ikuskaritzak eta kontrola barne) zuzenean, zeharka eta partekatuta parte hartzen duten gainerakoek arriskuan ikusten dutenean beren zereginak modu inpartzial eta objektiboan egin ahal izatea familiako arrazoiak, afektiboak, kidesun politikoak edo nazionalak, interes ekonomikoak edo bestelako zuzeneko edo zeharkako interes pertsonaleko arrazoiak direla-eta”.

Erregelamendu horrek, Kudeaketako MAREN III. C eranskinean aipatu bezala, hauxe ezartzen du:

- EBko erakunde guztietako administrazio eta operazio partida eta kudeaketa metodo guztietan aplikatu daiteke.
- Interes pertsonal zuzen eta zeharkako guztiak estaltzen ditu.
- Interes gatazka potentzial gisa “hautematen” diren egoera guztietan jardun egin behar da.
- Edozein mailatako agintaritzak nazionalak interesen gatazka potentzialak ekidin eta/edo kudeatu behar dituzte.

Hauek dira interesen gatazkaren parte izan daitezkeenak:

- Kudeaketa, kontrol eta ordainketa lanak egiten dituzten langile publikoak eta funtzio horietakoren bat jaso duten gainerako agenteak.
- Onuradun pribatuak, kideak, kontratistak eta azpikontratatistak, zeintzuen jarduketak funtsekin finantzatuta dauden eta beren interes propioen alde, baina EBren finantza interesen aurka jardun dezaketen interesen gatazka baten esparruan.

Espainiako araudian eraberrita dago interesen gatazka prebenitzeko sistema bat, eta hori abiapuntua da interesen gatazka prebenitzeari eta kudeatzeri lotutako definitu beharreko prozedurarentzat, Europako funtsen kudeaketan eskatzen den plangintza proaktibo eta espezifikoaren arabera. Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoaren arabera, hauek dira oinarritzeko elementuak:

6.1. Prebentzioa eta detekzioa

Europako Batzordeak eta Iruzurren aurka borrokatzeko Europako Bulegoak (aurrerantzean, OLAF) kudeaketa arduradunentzat eskuragarri jarri dute gida praktikoa bat interesen gatazkak detektatzeari buruz kontratazio publikoko prozeduretan eta egiturazko ekintzen esparruan.

BPAK INTERESEN GATAZKAK PREBENITZEKO ETA DETEKTATZEKO neurri hauek ezarriko ditu gida hau eta bestelako tresna batzuen laguntzarekin, adibidez egiaztapen zerrendak (check-listak) edo inprimakiak, horiek agertzea prebenitzeko:

- BPAren langileei informazioa ematea interes gatazken modalitateei eta eraginpeko pertsonen buruz.

Interes gatazken aurkako lehenengo prebentzio neurria da BPAko langileei jakinaraztea zeintzuk diren interesen gatazken modalitateak eta horiek ekiditeko moduak. Interes gatazken arrazoi izan daitezkeen egoerak kontuan hartuta, hauek daude:

a) Ustezko interesen gatazka: langile publiko edo onuradun baten interes pribatuek bere zeregin edo betebeharrak objektiboki betetzea arriskuan jar dezaketenean, baina azkenean pertsona horren jarreran, jokaeran edo harremanetan lotura identifikagarri eta indibidualik (edo alderdi horien ondorioz) aurkitzen ez denean gertatzen da.

b) Ustezko interesen gatazka: langile publiko edo onuradun batek etorkizunean erantzukizun ofizialak beren gain hartu beharko lituzketen kasuan interesen gatazka sor dezaketen interes pribatuak dituenean sortzen da.

c) Interesen gatazka errealak: betebeharrak publikoaren eta langile publiko baten interes pribatuen arteko gatazka da, edo langile publikoak interes pertsonalak dituenean eta horiek behar ez bezala eragin dezaketenean bere zeregin eta erantzukizun ofizialak betetzeko. Onuradun baten kasuan, funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharrak eta aipatutako beste betebeharrak zuzen ez betetzea sor dezaketen interes pribatuen arteko gatazka sortuko luke.

IG motei buruzko informazioa eman eta gero identifikatu behar da zeintzuk izan litezkeen jasoko luketen pertsonak:

a) Kontratazio organoko kideak, kontratazio publikoko zerbitzuen hornitzaileen langileak eta kontratazio publikoko prozeduraren egikaritzean zuzenean parte hartzen duten beste zerbitzu hornitzaileetako langileak.

b) Kontratazio organoa eta agintaritza horretako erabakiak hartzeko erakundeetako kideak, zeintzuek nahiz eta halabeharrez eta zuzenean kontratazio publikoko prozeduran parte hartzen ez duten, emaitzan eragin ahal dute.

- PRTR-ren Aginduaren interesen gatazkarik ez dagoenaren deklarazioa (DACI) betetzea – IV. eranskina

Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzaturako azpiproiektuen eta jarduketan kudeaketan eta egikaritzean esku hartzen duten BPAko agintari eta langile guztiek interesen gatazkarik ez dagoenaren deklarazioa beteko dute, agiri honen IV. eranskinean atxikita dagoena.

Zehazki, eta Kudeaketako MAREN III.C eranskinean zehaztuta dagoen moduan, deklarazio hori sinatu beharko dute dirulaguntzaren kontratazio/emakida organoko arduradunak, lizitazioen/oinarrien eta/edo deialdien agiriak idazten dituzten langileak, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, eskaeren/eskaintzen/proposamenen ebaluazio batzordeetako kideak eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoek. Kontratazio txikietan eta bitarteko propioei egiten zaizkien enkarguetan deklarazioa espedientearen unitate proposatzaileak edo sustatzaileak beteko du.

Horrez gain, laguntza emakidaren betekizunen barnean ustezko interesen gatazka duten jarduerak gauzatzen dituzten onuradunek DACI bete beharko dute baita ere.

Deklaratzaileak hauek jakinaraziko ditu DACI agirian:

- Ea badakien parte hartze duen administrazio prozedurari lotuta interesen gatazka itxurazkorik, ustezkorik edo errealik dagoen.
- Ea badagoen inguruabarrik etorkizun hurbilean interesen gatazka itxurazkoa, ustezkoa edo errealak sor dezakeenik.
- Inguruabarren batek aurrekorik sortu ahal duenean interesen gatazka potentzialak

berehala deklaratzeko konpromisoa hartzen duela.

- Informazioa egiaztatzea eta gurutzatzea

BPAk informazioa egiaztatuko du merkataritza erregistroen, nazio mailako erakundeen eta EBren datu baseen edo langileen espedienteen bidez (datuak babesteko arauak kontuan hartuta) edo datuak aztertzeko edo arriskuak puntuatzeko (ARACHNE) tresnak erabiliko ditu.

- Araudia aplikatzea

BPAk interesen gatazkei buruzko Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko araudia zorrozki aplikatuko du. Bereziki urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 53. artikulua, printzipio etikoei buruzko langile publikoen oinarrizko estatutuaren legearen testu bategina onesten duena, Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikulua, honako hauek arautzen dituztenak: administrazio publikoko agintariak eta langileak abstenitzeko duten betebeharrak, abstenitzeko arrazoiak, eta arrazoi horiengatik ez onartuak izatearen aukera, eta beste batzuen artean abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

- Adierazleen katalogoa (bandera gorriak) – V. eranskina

Interesen gatazkak detektatzeko adierazleak V. eranskinean jasota daude iruzur eta ustelkeria kasuak detektatzeko adierazleen katalogoarekin batera.

- Ebaluazio iraunkorra eta aldizkakoa

BPAk barne mekanismoak ezarriko ditu langileek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzen dutenean ebaluazio iraunkorra eta aldizkakoa egiteko, adibidez:

- Aldizka erreferentziarako galdetegiak betetzea, ebaluatzen diren langileek erabakia hartzen dutenean eta zehaztu dezaketen zein egoerek sortzen dituzten interesen gatazka ustezkoak, potentzialak edo errealak (IV. eranskina).
- Erabakiak hartzen parte hartzen duten BPAko langileentzako kontrol zerrendak.

6.2. Zuzenketa

Interesen gatazketako zuzenketa neurrien helburua da eraginpeko pertsona zigortzea eta/edo interesen gatazkak sortu duen kaltea konpontzea.

- Ex post egiaztaketaren kontrolak

BPAk egiaztatuko du ea benetan interesen gatazkarik egon den, eta horretarako, interesen gatazkak prebenitzeko kontrol zerrendak aprobetxatuko ditu. Ebaluazioak betetzeko erabiliko diren ex post mekanismoak DAClan oinarrituta daude, eta IG egoerak egiaztatzerakoan bestelako informazio mota batekin egiaztatu beharko dira.

Interesen gatazka penala bada, agintaritzak, gainera, eta nazio mailako legeriarekin bat etorritik, kasuaren administrazio alderdiak berrikusi beharko ditu eta egoeraren arriskuaren analisia gauzatu beharko du.

- Komunikazio sistema

Interesen gatazka egon daitekeela uste denean, eraginpeko pertsonak idatziz jakinaraziko dio hierarkian goragoko mailan dagoenari eta Kontratazio Organoak txosten juridiko bat

egingo du. Txosten horrek kasua instantzia judizialera eramateko erabakia babestuko du, baldin eta IG penala bada.

- Jarduera berrikustea, etetea eta/edo uztea

Interesen gatazka sor lezaketen kausaren batekin lotuta dauden BPAko agintariak eta langileak ez dute esku hartuko eraginpeko prozeduretan.

Interes gatazka onuradun pribatuei, kideei, kontratistei eta azpikontratistei ere eragingo die, zeintzuen jarduketak Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatuta dauden eta beren interes propioen alde, baina Europako, nazio mailako eta autonomia erkidegoko finantza interesen aurka jardun dezaketen interesen gatazka baten esparruan.

BPAk interesen gatazken eraginpeko jarduera guztiak amaituko ditu eta kaltetutako kontratua/egintza ezeztatuko du eta dagokion kontratazio publikoko prozeduraren zatia errepikatu beharko du.

Gainera, aplikatzekoa den zuzenbidearekin bat etorritik bestelako neurri osagarriak ezarri ahalko ditu, besteak beste diziplina zehapenak edo administraziokoak eta/edo zehapen espedienteak hasi ahalko du.

7. AGIRI FALTSUAK DETEKTATZEAREN INGURUKO NEURRIAK ETA PROZESUAK

OLAFen agiriak faltsifikatzeari buruzko gida praktikoan zehazten den moduan, agiri faltsu bat da egia aldatuta duen agiri bat. Aldaketa honelakoa izan daiteke:

- Fisikoa: agiri bat fisikoki aldatu daiteke. Adibidez, elementuak edo erreferentziak ezabatzea, eskuz idaztea agiria aldatzen duen informazioa, eta abar.
- Intelektuala: agiriaren edukia ez dator errealitatearekin bat. Adibidez, emandako zerbitzuen deskribapena faltsua izatea, txosten baten edukia faltsua izatea, asistentzien zerrenda bateko sinadurak faltsuak izatea, eta abar.

Onuradunek dirulaguntzak eskuratzeko, kontratazio publikoko prozesu batean parte hartzeko edo gastuak itzultzeko aurkezten dituzten agiri mota guztiak faltsifikatuak izan daitezke.

7.1. Detekzioa eta zuzenketa

Detektatzeko metodorik onena da faltsifikazio bat errealitatearekin lotzea. Horretarako, honako neurri hauek aplikatuko dira:

- Barneko kudeaketa eta kontrola

BPAk agiriaren eta arloko jardura eta ikuskaritza sektoreen (egiaztapen materialak) arriskuaren oinarritutako analisiak dituzten kontrolak egin ahalko ditu.

Barneko kontrolaren barnean kontuan hartuko dira arrisku handiagoa duten eta neurrian parte hartzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak gauzatu ditzaketen jarduketak.

- Adierazleen katalogoa (bandera gorriak) – V. eranskina

Faltsifikatutako agiriak detektatzeko adierazleak V. eranskinean jasota daude iruzur eta ustelkeria kasuak detektatzeko adierazleen katalogoarekin batera.

- Komunikazio sistema

BPAk Iruzuraren aurkako koordinazioko Zerbitzu Nazionalari (SNCA), eta hala badagokio Iruzuraren aurka borrokatzeko Europako Bulegoari (OLAF) jakinaraziko dizkio agiriak faltsutu diren kasuak.

Gainera, gertakariak zigorgarriak badira, egoera hori salatuko du dagokion agintaritzan (fiskaltza eta organo judizialak). Horretarako, kontratazio organoak txosten juridiko bat egingo du eta txosten horrek babestu egingo du kasua instantzia judizialetera eramateko erabakia.

8. FINANTZAKETA BIKOITZA

BPAk une oro aplikatuko ditu estatuko laguntzen araudia errespetatzen dela eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzen duten prozedurak. Horretarako, prozedura horiek Kudeaketako MAren 7. artikuluekin eta III.D eranskinarekin lerrotuta egongo dira, estatuko laguntzen araubidearekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitza prebenitzeari buruzkoa.

- Araudia aplikatzea

Estatuko laguntzaren kontzeptua Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107-109 artikuluetan eta bere garapen araudian jasota dago.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB erregelamenduaren bidez ezartzen da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa, eta 8. oinarriak hauxe jasotzen du: «Inbertsio pribatuak ere inbertsio publikoko programen, finantza tresnen, dirulaguntzen eta bestelako tresnen bitartez sustatu ahalko dira, baldin eta estatuko laguntzen arauak errespetatzen badira».

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (España Puede) 4.6 apartatua kontrol eta ikuskaritzeari buruzkoa da, eta berriaz jasota daude bertan estatuko laguntzak Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen egikaritzearen kontroleko ekintzaren parte gisa, eta zehazten du finantzaketa bikoitza «dirulaguntza publikoen kasuan ez dela bakarrik batasunaren finantzaketa bikoitzera iristen, baizik eta jatorria edozein izanda ere, sor litekeen edozein gehiegizko finantzaketara».

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamendua (EB Euratom) batasunaren aurrekontu orokorrari (finantza erregelamendua) aplikatzekoak zaizkion finantza arauak buruzkoa da, eta 188. artikuluan berriaz ezarrita dago debekatuta dagoela finantzaketa bikoitza dirulaguntzei aplikatzekoa zaien printzipio orokor gisa. Gainera, 191. artikuluan jasota dago hauxe: «Aurrekontuak inolaz ere ez ditu finantzatuko bi aldiz gastu berberak».

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduaren 62. oinarriak ezartzen du erregelamendu horretan aurreikusitako ekintzak koherenteak izan behar direla indarreko batasunaren programekin eta osatu egin behar direla, eta gainera, ekidin egin behar dela mekanismotik eta batasunaren gastu berberen beste programa batzuetatik datorren finantzaketa bikoitza, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari zehazki dagokionez. Erregelamendu horren 9. artikulua xedatzen du eraberritzeak eta inbertsio proiektuek batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso ahalko dutela, baldin eta kostu bererako erabiltzen ez bada.

- Autoebaluazioa – VI. eranskina

Gutxieneko estandarri buruzko autoebaluazioko galdetegi bat da. BPAk bete egin beharko du aldizka emaitzen txostenetan detektatutako arriskuaren arabera. Kudeaketako MAren II.B.6 eta III.D eranskinean dago eta agiri honen VI. eranskin gisa egokitu da.

- Kudeaketa deklarazioa ordainketa eskarian

PRTRn Europako Batzordeari zenbait ordainketa eskari egitea jasota dago.

Eskari horiek mugari eta helburuak betetzeari lotuta daude eta 2021/241 EB Erregelamenduaren 22. artikulua araberatuz izan behar dute «kudeaketa deklarazio bat, zeinetan adierazita egon behar den [...] funtsak aplikatzekoak diren arau guztiekin bat etorri kudeatu direla, bereziki interesen gatazkak, iruzurra, ustelkeria eta mekanismotik eta Europar Batasunaren beste programa batzuetatik datorren finantzaketa bikoitza prebenitzeko, finantza kudeaketa onaren printzipioa betez».

Kontrol organoek berrikusiko dute PRTR-ren jarduketak egikaritzen dituzten organoek eta PRTR-ren jarduketak egikaritzeko agindua jaso duten beste erakundeek kudeaketa deklarazioa aurkezten dutela iruzurra prebenitzeari dagokionez. Maiztasuna egutegiaren arabera izango da.

9. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

BPAk iruzurren aurkako neurrien planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu eguneratuta mantendu dadin, eta nazio eta Europa mailako zuzentarauak beteko ditu.

9.1. Jarraipena eta ebaluazioa

Iruzurren aurkako neurrien planaren jarraipena eta ebaluazioa urtean behin egingo da arau eta praktikotasun ondorioekin betetzen dela zaintzeko eta hobekuntza alderdiak identifikatzeko.

Jarraipena eta ebaluazioa erakunde eta organo kudeatzaileen ekarpenekin egin ahal izango dira inprimakien bidez eta/edo beharrezko kontrol mekanismo berriak identifikatzen diren ikuskaritzetako ondorioen arabera.

Organo kudeatzaileak edo kontrol organoek arriskuren bat detektatzen badute eta urtean behingo maiztasuna albo batera utzita, planaren neurrien jarraipena egingo da.

Halaber, integritatearen aurkako, iruzurrezko edo ustelkeriazko egintzaren bat egiten bada, erakundeak gertatutakoak analizatu behar ditu eta zehaztu behar du zeintzuk diren kontrol egitura eta prozesuetan egin beharreko aldaketak.

9.2. Prozedurak eguneratzea

Urtean behin aztertuko da ea planeko prozedurak sartu eta/edo eguneratu behar diren, horrela irregulartasunak ekiditeko.

Hala dagokionean eta beharrezkoa bada, prebentzio planak sartuko dira.

9.3. Eguneraketak edo aldaketak jakinaraztea eta hedatzea

Iruzurren aurkako neurrien plana BPAren webgunean argitaratuko da eta langile guztiei banatuko zaie, bereziki unitate kudeatzaileei.

Arreta berezia jarriko da planaren berrikuspenetik sortutako sarrera edo aldaketa berriak hedatzeko.

IRUZURRAREN AURKAKO ERAKUNDE DEKLARAZIOA

Bilboko Portuko Agintaritzaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren erakunde egikarizalea da Berreskuratze eta erresilientzia planaren kudeaketa sistema eratzen duen irailaren 29ko 1030/2021 Aginduan xedatutakoaren arabera, izan ere, bere eskumeneren esparruan Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko eraberritzeen proiektuak eta azpiproiektuak eta inbertsioak egikaritzen ditu.

Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 EB Erregelamenduak ezartzen du estatu kideek nahitaez aplikatu behar dituztela neurri egokiak batasunaren finantza interesak defendatzeko eta zaintzeko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzeko neurriekin lotutako funtsak batasunean eta nazio mailan aplikatzeko den zuzenbidearekin bat etorri erabiltzen direla, eta bereziki iruzurra, ustelkeria eta interesen gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokienez.

Bilboko Portuko Agintaritzako administrazio kontseiluak jakinarazi nahi du arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeko estandar altuenak aplikatuko dituela eta integritate, objektibotasun eta zintzotasun printzipio zorrotzenak beteko dituela, modu horretan, agintaritzarekin harremana duten eragile guztiek ikus dezaten bere jardueraren edozein motako iruzurraren eta ustelkeriaren aurkakoa dela.

Bilboko Portuko Agintaritzako langileak langile publikoak direnez, konpromiso hori beren gain hartzen eta partekatzen dute. Beraien zereginen artean dago besteak beste *“interes orokorrak zaintzea Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua”* (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, 52. artikulua).

Iruzurren aurkako neurrien plan bat sortu da iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko neurri eraginkorrak eta proportzionatuak martxan jartzeko. Aurrekoak plangintza proaktiboan, egituratuan eta espezifikoan oinarrituta daude eta beraien xedea da iruzur arriskua kudeatzea eta bermatzea Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko jarduketan gastuek ez dutela interesen gatazkarik, iruzurrik, ezta ustelkeriarik. Abiapuntua egindako iruzurraren arrisku ebaluazioa izan da. Horrez gain, iruzurra edo ustelkeria sor dezaketen egoerak prebenitzeko, detektatzeko, salatze eta jarraitzeko prozedurak daude.

Politika horren helburua da erakundearen iruzur jarduerak egiteko gogoak kentzen duen eta prebentzioa eta detekzioa errazten dituen kultura hedatzea eta inguruabar horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak sustatuko dira.

Azken finean, Portuko Agintaritzak honek iruzurraren eta ustelkeriaren aurreko zero tolerantzia politika du eta kontrol sistema sendoa ezarri du, bereziki diseinatuta dagoena ahal den heinean iruzur egintzak prebenitu eta detektatzeko eta horrelakorik gertatuz gero, horien inpaktua zuzentzeko.

Arriskuaren ebaluazioa, inpaktua eta probabilitatea

Interes gatazka, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko testa (Kudeaketako MAren II.B.5 eranskina):

GALDERA	BETETZE MAILA			
	4	3	2	1
1. Badago "Iruzzurraren aurkako neurrien planik" erakunde egikaritzailleak edo erabakitzaileak bermatu eta deklaratu ahal izateko bere jarduketa esparruan dagozkien funtsak aplikatzekoak diren arauekin bat etorritik erabili direla eta bereziki iruzurra, ustelkeria eta interesen gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokienez?				
2. Egikaritze maila guztietan dago "Iruzzurren aurkako neurrien plana"?				
Prebentzioa				
3. Baduzu maila goreneko deklaraziorik, zeinaren bitartez konpromisoa hartzen duzun iruzurraren aurka borrokatzeko?				
4. Egiten al da autoebaluaziorik arrisku espezifikoak, horien inpaktua eta gertatzeko duten probabilitatea identifikatzeko eta aldizka berrikusten al da?				
5. Kode etikoa banatzen al da eta oparien politikari buruzko informazioa ematen da?				
6. Etika publikoa sustatzen duen eta iruzurra detektatzea errazten duen prestakuntzarik ematen al da?				
7. Prozedurarik sortu al da interesen gatazkak jorrazteko?				
8. Esku-hartzaile guztiek betetzen al dute interesen gatazkarik ez dagoenaren deklarazioa?				
Detekzioa				
9. Definitu al dira iruzurraren adierazleak edo alerta seinaleak (bandera gorriak) eta horiek detektatu ahal dituzten langileei jakinarazi al zaizkie?				
10. Erabiltzen al dira datuak aztertzeke edo arriskuak puntuatzeko tresnak?				
11. Ba al dago biderik interesa dutenek salaketak aurkezteko?				
12. Ba al dago unitaterik ardura duenik salaketak aztertzeke eta neurriak proposatzeko?				

Zuzenketa				
14. Iruzuraren intzidentzia ebaluatzen eta sistemiko edo puntual gisa kalifikatzen al da?				
15. Iruzurak kaltetutako eta MMRk finantzatutako edo finantzatu beharreko proiektuak edo proiektuen zatiak baztertzen al dira?				
Jazarpena				
16. Gertatutakoak eta ezarritako neurriak erakunde kudeatzaileari, erabakitzaileari edo agintaritza arduradunari jakinarazten al zaizkio dagokionaren arabera?				

17. Beharrezko kasuetan salatzen al zaizkie egitate zigorgarriak agintaritza publiko nazionaleri edo Europar Batasuneko agintaritzei edo fiskaltzari eta eskudunak diren auzitegiei?				
Puntuen guztizko partziala				
Puntuak, guztira				
Puntuak, gehienez	64			
Puntu erlatiboak (Puntuak, guztira / Puntuak, gehienez)				

III. ERANSKINA

- BPA-KO JARRERA KODEA

- IRUZURRAREN, EROSKERIAREN ETA USTELKERIAREN AURKAKO ETA PUBLIZITATEAREN ETA BABESLETZEN, OPARIEN ETA ARRETEEN BETETZE POLITIKA.
- **ADMINISTRAZIOKO LANGILE PUBLIKOEN ETA GOI KARGUEN JOKAEREN ARAUDI ERREGULATZAILEAREN LABURPENA. (51-61 ORRIALDEAK)**

IV. ERASKINA

INTERESEN GATAZKARIK EZ DAGOENAREN DEKLARAZIOA

(DACI)

Espedientea/kontratua/dirulaguntza/hitzarmena:

Goiko prozedura inpartziala dela bermatzeko, behean sinatzen duenak/dugunok, espedientearen prestatze eta izapidetze prozesuaren parte-hartzaile gisa, deklaritzen dut/dugu:

Lehenengoa. Informazio honen berri badudala/badugula:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko (EBren finantza erregelamendua) 2018/1046 Erregelamenduaren (EB, Euratom) «Interesen gatazka» 61.3 artikulua ezartzen du «interesen gatazka dagoela zereginen egikaritze inpartziala eta objektiboa arriskuan dagoenean familiako arrazoiak, afektiboak, kidesan politikoak edo nazionalak, interes ekonomikoak edo bestelako zuzeneko edo zeharkako interes pertsonaleko arrazoiak direla-eta.»

2. Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen «Ustelkeriaren aurkako borroka eta interesen gatazkaren prebentzioa» 64. artikulua helburua da eskumenaren aldaketak ekiditea eta bermatzea prozedura gardena dela eta ziurtatzea hautagai eta lizitatuak guztiei tratu berbera ematen zaiela.

3. Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen «Abstentzioa» 23. artikulua ezartzen du ez dutela prozeduran esku hartuko «administrazioko agintari eta langileek, baldin eta hurrengo apartatu bateko inguruabarretan badaude», honako hauek:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean; elkarre edo erakunde interesdun bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza lotura edo ezkontzaren antzeko lotura eta laugarren maila arteko odol ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari edo mandataritza.

c) Aurreko apartatuan aipaturiko lagun batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.

e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan zerbitzuak eskaini izana».

Bigarrena. EBko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan jasotako interesen gatazken egoeraren batean ez egotea eta ez izatea Sektore publikoko araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio kausarik, zeinak lizitazio/emakida prozedura kaltetu dezakeen.

Hirugarrena. Kontratazio organoari/ebaluazio batzordeari jakinaraziko diola/diotela luzamendurik gabe interesen gatazken egoerak edo abstentzio kausak, baldin eta horrelako egoera sortu badezakete edo sortzen badute.

Laugarrena. Badakit interesen gatazkarik ez dagoenaren deklarazioa faltsua bada ondorio diziplinarioak, administraziokoak eta/edo judizialak ezarriko direla, aplikatzekoa den araudiak ezartzen duenaren arabera.

Eta, horrela ager dadin, adierazpen hau sinatu dut.

V. ERANSKINA

ARRISKU ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)

Bandera gorriak alarma seinaleak dira, iruzur posiblearen pistak edo zantzuak. Bandera gorria egoteak ez du esanahi halabeharrez iruzurra dagoenik, baina adierazten du jarduera arlo jakin bati arreta osagarria jarri behar zaiola iruzur potentzial bat alboratu edo egiaztatzeko.

Kontuan hartuta zein den erakunde erabakitzailearen/egikaritzearen jarduketa eremua Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eta zein tresna juridikotan parte hartzen duen, bandera gorri hauek izango dira iruzurraren eta ustelkeriaren alertako adierazle posibleak:

BANDERA GORRIAREN DESKRIBAPENA		Prozeduran detektatu al da APFSCk definitutako bandera gorriak?			Oharrak	Ezartzekoak diren neurriak
KONTRATAZIOA		BAI	EZ	Ez da aplika tuko		
A	LIZITATZAILE BATEN ALDE MOLDATUTAKO PLEGUAK					
1	Eskaintza bakarra aurkeztu da edo lizitazaile kopurua ez ohiko moduan txikia da					
2	Frogatu daitekeen antzekotasuna dago kontratazio prozeduraren pleguen eta kontratista adjudikaziodunaren zerbitzuen eta/edo produktuen artean					
3	Lizitazaileak horri buruz kexatu dira					
4	Kontratazio prozedurako pleguetako xedapenak ez dira aurreko antzeko prozeduretan onetsitakoak modukoak					
5	Pleguetan ez ohiko klausulak edo zentzu handirik ez dutenak daude					
6	Botere adjudikatzailea marka jakin bat definitzen ari da produktu generiko bat definitu barrean					
7	Informazio eta publizitate neurriak falta dira kontratazio prozeduraren dokumentazioan eta/edo epeak ez dira nahikoak eskaintzak jasotzeko					
B	LIZITAZIOAN KOLUSIOA EGOTEA					

8	Lizitazioaren emaitzarekin kontratua adjudikatu zaio altuegia den eskaintza bati aurreikusitako kostuekin, prezio publikoen zerrendekin, antzeko obra edo zerbitzuekin edo industriako batez bestekoekin edo merkatuko erreferentzia prezioekin alderatuta					
9	Aurkeztutako eskaintza guztien prezioak altuak dira modu jarraituan. Egiaztatuko lukete: Lizitzaileen akordio posibleak egotea eskaintako prezioetan					
10	Lizitzaile berriak egotean eskaintzak asko jaisten dira					
11	Adjudikaziodunek parte-hartzea txandakatzen dute lurraldearen, lan motaren, obra motaren eta abarren arabera. Egiaztatuko luke: Lizitzaileen arteko akordio posibleak egotea merkatua banatzeko					
12	Lizitazioan parte hartu zuten azpikontratatistak daude					
13	Ez ohiko eskaintza patrioiak daude (adb: kontratuaren aurrekontua eskaintzen da zehatz mehatz, eskaintzen prezioak altuegiak dira, oso gertukoak, eta abar.)					
14	Lizitzaileen arteko konexioen frogak (adb: etxe komunak, langileak, telefono zenbakiak, eta abar.)					
15	Kontratistak azpikontratistei jakinarazi die lizitzaile gisa parte hartzen dutela baita ere					
16	Beti konpainia berberak lehiatzen dira eta beste batzuk sekula ere ez					
17	Gezurrezko lizitzaileak daude					
18	Frogak daude diotenak lizitzaile batzuek informazioa trukatzeko dutela eta horrekin akordio informalak lortzen dituztela					
18	Frogak daude diotenak lizitzaile batzuek informazioa trukatzeko dutela eta horrekin akordio informalak lortzen dituztela					

19	Sektore batzuetan kolusioak gertatzeko probabilitate handiagoa dago: asfalto zoladura, eraikinak eraikitzea, dragatzea, ekipo elektrikoak, teilatuak, hondakinak deuseztatzea?					
----	--	--	--	--	--	--

C	INTERESEN GATAZKA					
20	Kontratista edo saltzaile jakin baten alde egiten da azalpenik gabe edo ez ohiko moduan eta/edo funtzionario/langile batek ez ohiko jokaera du bere kargura ez dagoen prozedura bati buruzko informazioa jasotzeko					
21	Kontratazio organoko kideren batek lizitazioan parte hartzen duen enpresa batean lan egin du adjudikazio erakundeko lanpostuan hasi baino aurreurretik					
22	Kontratazio organoko funtzionario/langile baten eta lizitatzaille baten artean familia lotura dago					
23	Lizitatzaille beraren alde errepikatu dira adjudikazioak					
24	Prezio altuak eta kalitate gutxiko lanak onartzen dira					
25	Kontratazioaren ardura duten funtzionarioek/langileek ez dute DACI aurkeztu edo osatu gabe aurkeztu dute					
26	Kontratazioaren ardura duen funtzionarioak/langileak ez du kontratazio prozesuak uztea suposatzen duen maila igoera bat onartu					
27	Kontratazioan parte hartzen duen funtzionarioak/langileak negozio propioak egiten ditu					
28	Harreman soziala dago harreman profesionaletik haratago kontratazio prozeduran parte hartzen ari den funtzionario/langile baten eta zerbitzu edo produktu hornitzaile baten artean					
29	Ezin azalduzko moduan gehitu da kontratazioan parte hartzen duen funtzionarioaren/langilearen aberastasuna edo bizi maila					
D	ESKAINITAKO ESKAINTZAK MANIPULATZEA					

30	Lizitatuzaileak kexatu egin dira (salaketak, erreklamazioak, eta abar)					
31	Lizitazio prozeduren kontrol falta eta/edo desegokitasuna dago					
32	Zantzu batzuek egiaztatzen dute eskaintzak aldatu direla jaso ondoren					
33	Akatsengatik kanpo utzi diren eskaintzak daude					
34	Lizitatuzaile gaituak daude eta baztertuak izan dira zalantzako arrazoiak direla-eta					
35	Gutxieneko zenbakia baino eskaintza gutxiago jaso dira eta hala ere, prozedurak aurrera egin du hustzat jo gabe. Edo prozedura hustzat jo da eta deialdia berriro ere egin da, nahiz eta eskaintza onargarriak jaso diren pleguetako irizpideekin bat etorritz					
<i>E</i>	<i>GASTUAREN ZATIKATZEA</i>					
36	Adjudikazio berberaren alde eta antzeko muinarekin bi eskuratze edo gehiago daude, eta xede bakarra da konkurrentzia berme handiagoak dituen prozedurarik ez erabiltzea					
37	Erosketak justifikaziorik gabe bereizi dira. Adibidez, eskulaneko eta materialen kontratu bereziak, biak ere lizitazio irekiko atalaseen azpitik egonik					
38	Erosketa sekuentzialak daude lizitazioen publizitate betebeharren atalaseen azpitik					
<i>F</i>	<i>KONTRATUAK NAHASTEA</i>					
39	Lan edo kontratu ezberdinetan aurkeztutako antzeko fakturak daude					
40	Kontratistak lan bat baino gehiago fakturatzeko denbora tarte berean					
<i>G</i>	<i>KOSTUEN KARGA OKERRA</i>					
41	Lan kargak gehiegizkoak edo ezohikoak dira					

42	Lan kargak ez dira bateragarriak kontratuaren egoerarekin					
43	Ustezko aldaketak daude denboren kontrol orrietan					
44	Ez dago denboren kontrol orririk					
45	Kontratu bati baino gehiagori egotzitako kostu material berdinak daude					
46	Zeharkako kostuak kostu zuzenak bailiran egozten dira					

<i>BANDERA GORRIAREN DESKRIBAPENA</i>		<i>Prozeduran detektatu al da APFSCk definitutako bandera gorriak?</i>			<i>Oharrak</i>	<i>Ezartzekoak diren neurriak</i>
<i>DIRULAGUNTZAK</i>		BAI	EZ	Ez da aplikatuko		
<i>LIZITATZAILE BATEN ALDE MOLDATUTAKO PLEGUAK</i>						
<i>A LEHIA MUGATZEA</i>						
1	Oinarri arautzaileak/deialdia behar beste ez hedatzea eta publizitate eta gardentasun printzipioak ez betetzea. Hori gerta daiteke beste batzuen artean ez direlako bete Dirulaguntzen lege orokorreko eta/edo beste komunikabide batzuetako nahitaezko bitartekoak					
2	Definizio argia falta da laguntzen/dirulaguntzen onuradunek/jasotzaileek bete beharreko betekizunen deialdian					
3	Oinarri arautzaileetan/deialdian ezarritako eskariak aurkezteko epeak kontuan ez hartzea					

4	Emandako dirulaguntzak aplikatzekoak direnean aldizkari ofizialetan baremoak argitaratzea falta da					
---	--	--	--	--	--	--

5	Laguntzen onuradunak/jasotzaileak ez du betetzen lehia bermatzeko betebeharra hornitzaileekin negoziatu behar badu. Dirulaguntzen lege orokorraren 31.3 eta 29.7 artikulua ez dira betetzen					
<i>B</i>	<i>ESKATZAILEAK HAUTATZEAN TRATU DISKRIMINATZAILEA EMATEA</i>					
6	Onuradunak hautatzean ez dira bete objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak. Ez da irizpide homogeneorik jarraitu onuradunak aukeratzeko					
<i>C</i>	<i>INTERESEN GATAZKAK EBALUAZIO BATZORDEAN</i>					
7	Nahita eragin da onuradunen ebaluazioan eta hautaketan eta batzuen alde egin da, lehentasunezko tratua eman zaie edo batzordeko beste kide batzuk presionatu dira					
<i>D</i>	<i>ESTATUKO LAGUNTZEN ARAUBIDEA EZ BETETZEA</i>					
8	Finantzatutako eragiketak estatuko laguntzak dira eta ez da Europako araudian horri buruz ezarritako informazio eta jakinarazpen prozedura jarraitu					
<i>E</i>	<i>DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUKETAK DESBIDERATZEA</i>					
9	Onuradunak ez du kontuan hartu dirulaguntzaren araudian ezarritako xedea edo egikaritzea falta da					
<i>F</i>	<i>GEHIGARRITASUN PRINTZIPIOA EZ BETETZEA</i>					
10	Eragiketen baterako finantzetan gehiegikeria bat dago					
11	Proiektu berbera finantzatzen duten hainbat finantzatzaile daude					

12	Hirugarrenek egindako ekarpenen euskarri-dokumentazioa falta da (adibidez: hitzarmenak, dohaintzak, bestelako diru ekarpenak, eta abar).					
----	--	--	--	--	--	--

13	Hirugarrenek emandako finantzaketaren izaera finalista falta da, eta ez dago banatzeko irizpiderik					
14	Onuradunak ez du proiektu bakoitzaren gastu eta diru-sarreraren kontrolik egiten					
15	Onuradunak ez du proiektuari esleitutako xedeen eta/edo helburuen kontrolik egiten					
<i>G</i>	<i>DOKUMENTU FALTSUAK</i>					
16	Egiaztatu da agiri edo deklarazio faltsuak aurkeztu dituztela eskatzaileek hautaketa prozesuan aukeratuak izateko. Datu faltsuak egon daitezke sinatutako deklarazioetan, finantza informazioan, konpromisoetan, eta abarrear, eta Ebaluazio Batzordeak akatsak egitera eramaten dute					
17	Gastuen justifikazioaren euskarri dokumentala manipulatu da					
<i>H</i>	<i>ARAUDI NAZIONALAK ETA BATASUNEKOAK EZARRITAKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA INFORMAZIO ETA PUBLIZITATEAREN ARLOETAN</i>					
18	Ez dira bete informazio eta komunikazio betebeharrak. Bereziki nazio mailako eta Europako araudi testuetako betebeharrak					
<i>I</i>	<i>IKUSKARITZA PISTA GALTZEA</i>					
19	Erakundeak albo batera utzi du ikuskaritza pista bermatuko lukeen eragiketaren dokumentazio zuzena					

20	Deialdian ez da azaltzen nola dokumentatu behar diren eragiketaren gastuak					
21	Deialdian gastu hautagarrien definizio argia eta zehatza falta da					

22	Deialdian proiektuetan aplikatu beharreko kostuak kalkulatzeko metodoa falta da					

BANDERA GORRIAREN DESKRIBAPENA		Prozeduran detektatu al da APFSCk definitutako bandera gorriak?			Oharrak	Ezartzekoak diren neurriak
ENKARGUAK		BAI	EZ	Ez da aplikatuko		
A	<i>JARDUERA IRREGULARKI EGIKARITZEA</i> <i>Batez ere,</i> <i>AZPIKONTRATATUA izatean</i>					
1	Gauzatu beharreko jarduera azpikontratatu da eta emandako zerbitzuek edo ondasunek ez dute betetzen itzaroten den kalitatea					
2	Enkargua jaso duen erakundeak ez du betetzen lehia bermatzeko betebeharra hornitzaileekin negoziatu behar baldin badu					
3	Enkargua jaso duen erakundeak ez du betetzen lehia bermatzeko betebeharra azpikontratazioaren kasuan					
4	Azpikontratutako lanek ez dute betetzen egokia litzatekeen eskulanaren kualifikazioa					
5	Zehaztu gabe deskribatu dira azpikontrastek egin behar dituzten jarduerak					
6	Azpikontrastek ez dituzte betetzen informazio eta komunikazio betebeharrak					
7	Azpikontrastek ez dituzte betetzen gastuaren hautagarritasun neurriak					
8	Azpikontrastak ez du behar bezala dokumentatu ikuskaritza pista bermatzeko eragiketa					

VI. ERANSKINA
ESTATUKO LAGUNTZEN ARAUBIDEAREN BATERAGARRITASUN
TESTA ETA FINANTZAKETA BIKOITZA EKIDITEKOA

Interes gatazka, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko testa (Kudeaketako MAren II.B.6 eranskina):

GALDERA	BETETZE MAILA			
	4	3	2	1
1. Aplikatzen al dira prozedurak bere arloan eman beharreko laguntzen aurretiazko jakinarazpen/komunikazio beharra baloratzeko, eta hala badagokio, estatuko laguntzei buruzko batasuneko araudia errespetatzen dela bermatzen duen aurretiazko jakinarazpena/komunikazioa egiteko? (Ondorio horietarako, egiaztapen zerrendaren eredia edo check-lista eman da).				
2. Zeregin hori egiteko giza baliabide espezifikoak al daude?				
3. Ba al dago aurretiazko arazorik estatuko laguntzen araudia betetzearekin lotuta?				
4. Egiaztatu al da analisisirik egin denik estatuko laguntzen araudiari buruz egikaritze maila guztietan?				
Puntuen guztizko partziala				
Puntuak, guztira	16			
Puntuak, gehienez	16			
Puntu erlatiboak (Puntuak, guztira / Puntuak, gehienez)				